

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [HISTORIA UNIVERSAL III \(CONTEMPORÁNEA\)](#)

Irakaslea/Profesor/a: **Eduardo J. Alonso Olea**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Historia unibertsal garaikidearen oinarritzko gaietan oinarrituta egituratzen da ikasgaia, Amerikar Iraultzatik, XVIII. mende amaieran, XXI. mendeko lehenengo bi hamarraldietara arte.

Azken batean, mundua orain den bezalakoa izatera nola iritsi den azaltzea da ikasgai honen asmoa, historia nola garatu den azalduta, eta azkeneko 250 urteetan gertatu diren aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoak azalduta, aldaketa horiek baldintzatu dituzten espazio politiko eta sozialetan.

Gaitasunak/Competencias

1- Historia unibertsalaren, nazionalaren eta tokiko historiaren gertakari eta prozesu nagusiak behar adina ezagutzen eta behar bezala ulertzen dituela erakustea, ikuspegi diakroniko batetik, haien alderdi guztietan (ekonomia, gizartea, politika, kultura, e.a.) eta egungo gizarteekin dituzten harremanari dagokionez.

2- Historiak garatutako diskurtso zientifikoa hierarkizatzeke eta sekuentziatzeke gaitasuna erakustea, irakaskuntzaren, dibulgazioaren eta komunikazioaren arloetan.

3- Ikasleak gai izatea datu garrantzitsuak biltzeko eta interpretatzeko (normalean, haien ikasketa arloan), gai sozial, zientifiko edo etiko garrantzitsuei buruzko hausnarketa bat jasoko duten iritziak emateko.

4- Ikasleak gai izatea publiko espezializatuei zein ez espezializatuei informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak transmititzeko.

Edukiak/Contenidos

A. Antzinako Erregimenaren krisia, iraultza liberala eta liberalismoa (1770-1870)

1. Amerikar Iraultza. 1763-1783.

Iraultzaren kontzeptua. - Lehenengo agerpen iraultzaileak: Ipar Amerikako britainiar kolonien emantzipazioa. - Amerikako Estatu Batuen 1787ko Konstituzioa.

2. Frantziako Iraultza, hark izan zuen garrantzia eta haren epigono inperiala. 1787-1815

Iraultza prozesua. - Iraultzaren egitekoa. - Napoleonen Inperioa: Estatu berria eta *grandeur de la France*.

3. Iraultza eta Kontrairaultza

Berrezarkuntza: Antzinakoaren itzulera, Berriarekin lehian. Vienako Kongresua eta Europako panorama berria. 1820ko iraultzak: hegoaldeko liberalismoaren matxinada

4. Industria Iraultza

Industria Iraultzaren faktoreak (demografia, nekazaritza, industria, garraioak...). Industria garapenaren ondorioak: liberalismoa eta klaseen gizartea.

5. Liberalismo politikoa eta nazionalismoa European

Liberalismoa aldaketaren eragile. - Erregimen liberalen antolamendua: konstituzionalismoaren hedapena. - 1830eko iraultza bolada. - 1848ko iraultza boladaren nazioarteko dimentsioak - Nazionalitateen mugimendua eta haren hedapena European zehar. Italia eta Alemaniaren bateratzea.

B. Inperialismoaren Aroa eta haren krisia. "Bake Armatutik" Bigarren Mundu Gerrara arte (1870-1945)

1. Kapitalismo finantzarioa (1870-1914)

Depresio Handia (1873-1890). Aldaketa demografikoak: hazkundera eta emigrazioa. Krisitik irtetea: kapitalismo finantzarioa. Hedapen inperialista: inperio kolonial handien sorrera.

2. Liberalismotik demokraziara

Liberalismoa eta demokrazia. - Sufragio unibertsalaren ezarpena eta haren ondorioak. - Langileen mugimenduaren agerpena eta garapena: Internazionalak. - Nazionalitatea eta autodeterminazio printzipioa. Nazioarteko harremanak (1870-1914).

3. Lehen Mundu Gerra, XIX. mendeko azkeneko gerra eta XX. mendeko lehenengoa.

Gatazkaren garapena: nekea eragin zuen gerra handia. Gerraren ondorioak: ordena berri baten sorrera krisian.

4. 1917ko Errusiar Iraultza

Tsarren Errusia: autokrazia modernotasunaren amildegiaurrean. Tsarismoaren amaiera: otsaileko Iraultza. Urriko Iraultza: langileriaren diktadurarantz. 5. Sozialismoaren eraikuntza Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean –SESB– (1921-1941): Stalinen diktadura.

5. Gerren arteko ekonomia, boometik crackera

Krisiaren jatorria: oparotasun ezegonkor bat. Krisia: cracketik atzeraldira. Krisiaren aurkako borroka: neurri tradizionaletatik interbentzionismo keynestarrera.

6. Demoliberalismoa krisian: totalitarismoak

Gerraosteko iraultzak (1917-21). - Demokraziaren krisia. - Erantzun totalitarioak: faszismo italiarra, nazionalsozialismo alemaniarra.

7. Bigarren Mundu Gerra: mundu berri baten hasiera.

Gatazka berriaren kausak. - Gerraren fase europarra. - Gerraren hedapena Pazifikora. Gerraren unibertsalizazioa. - Gatazkaren ondorioak: demografikoak, ekonomikoak, politikoak eta etikoak.

C. XX. mendearen bigarren erdia (1945-1990)

1. Mendebaldeko mundua: amerikar inperio bat? (1945-1990)

Europa berreraikitzea: Marshall Plana. Japoniar miraria. AEBen hegemonia. Europaren eraikuntza: Erromatik Maastrichtera. Hazkundera, petrolioaren krisia eta mendebaldeko ekonomien birdefinizioa.

2. Sozialismoaren hedapena: sobietar inperio bat? (1945-1990)

Berreraikuntza estalinista. Ekialdeko Europaren berreraikuntza eta herri demokrazien sorrera. SESB: desestalinizaziotik nomenklaturaren garaipenera. Txina maoista. Mundu sozialista: sistemaren hondoratzea

3. Blokeen eraketa.

Gerra hotza eta blokeen arteko lehenengo konfrontazioak. Tentsioa eta distentsioa gerra hotzaren bilakaeran: koexistentzia baketsua. Gerra hotzetik eta mundu bipolarren amaierara. Deskolonizazioa, Hirugarren eta Laugarren Munduak eta azpigarapena.

4. Politika eta gizartea XXI. mende hasieran

Blokeen krisiaren eraginak. Ekonomia globalizatu berria. Politika nazionalen krisia. Mugimendu sozial eta erlijioso berriak krisi ekonomikoko garaietan.

Metodologia/Metodología

Bide bikoitz batetik abiatzen da metodologia; alde batetik, eskola magistralekin abiatzen dira gaiak eta, bestetik, garaiko testu edo material sorta bat banatzen zaie ikasleei. Azalpen teorikoago baten ondoren (aurkezpenen laguntzarekin), eta hurrengo gaiari heldu baino lehen, ikasleei banatu zaizkien testuei buruzko iritziak partekatzea planteatzen da, ikasleek zer iruditu zaizkien, zerk deitu dien arreta edo testu edo material horietatik interesgarriena zer iruditu zaien adierazi ahal izan dezaten (izan daitezke mapak, grafikoak, taulak... ez testuak soilik). Partekatze ariketa horrekin, helburua da ikasleak dagokion gaiari dagokionez testuinguruan hobeto koka daitezzen lortzea eta, gai politikoez haratago, alderdi sozial batzuekiko haien interesa areagotzea, baita eguneroko bizitzako alderdiekiko interesa ere.

Ikasturteko lehenengo egunean, ikasleei jakinarazten zaie borondatezko lan bat egin dezaketela, nota igotzeko helburuz.

Lauhilekoko lehenengo egunetan, gainera, ordutegiaren eta eguraldiaren arabera, bisita gidatu bat egiten da Zazpi Kaleetan; bisita horrekin, ikasleek ikasgelan modu materialean azaltzen zaienaren (hiri garapena, industrializazioa, kapitalismoa...) eta Bilboko Zazpi Kaleetako hiri bilbean ikusten dutenaren arteko erlazioak aurki ditzaten lortu nahi da. Asmoa da nabarmentzea historia ez dela akademiko aspergarrien ardurapean dagoen oroitzapen hil bat, baizik eta historia egunero dagoela agerian haien eguneroko bizitzan, haien hirietako kaleetan dabiltzanean.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Bertaratze aktiboan oinarritzen da ebaluazio sistema; hau da, egunero bertaratzea kontrolatzeaz gain, partehartzea ere kontuan hartzen da. Partehartze hori izan daiteke lanen bitartez edo, banatutako testuen harira (vid. Supra), ikasgelan sortzen diren eztabaidetan esku hartuta, bai eta eskoletan, albisteekin lotuta, unean unean eztabaidatzen diren gaien inguruan hitz eginda edo galderak eginda, esaterako.

Azken batean, bertaratzeaz gain, ikasleen partehartze aktiboa ere ebaluatzen da.

Bibliografia/Bibliografía

Eskuliburu eta lan orokorrak

ALVAREZ JUNCO, José. Dioses útiles. Naciones y nacionalismos. Bartzelona: Galaxia Gutenberg, 2016.

ARÓSTEGUI, J., BUCHRUCKER, C. eta SABORIDO, J. (zuzendariak). El mundo contemporáneo: historia y problemas. Buenos Aires- Bartzelona, 2001.

BARRACLOUGH, G. Introducción a la historia contemporánea. - Madril: Gredos arg., 1980.

CALVORESI, P. Historia política del mundo contemporáneo. - Madril: Ariel, 1985.

CASASSAS, J. (koordinatzailea): El mundo desde 1848 hasta nuestros días. La construcción del presente, Bartzelona: Ariel, 2005.

EVANS, Richard J. La lucha por el poder. Europa, 1815-1914. Bartzelona: Crítica, 2017.

FERGUSON, Niall. El imperio británico: Cómo Gran Bretaña forjó el orden mundial. Madril: Debate, 2012.

FERNÁNDEZ, A. Historia contemporánea. - Bartzelona: Vicens Vives arg., 1984.

FONTANA, Josep. El futuro es un país extraño. Una reflexión sobre la crisis social de comienzos del siglo XXI. Bartzelona, Pasado y Presente, 2013.

FONTANA, Josep. Por el bien del imperio. Una historia del mundo desde 1945. Bartzelona, Pasado y Presente, 2011.

HOBBSAWM, E. J.: Naciones y nacionalismo desde 1780, Bartzelona, Crítica, 2000.

JULIÁ, J. R. (zuzendaria). Atlas de Historia Universal. T. II. Bartzelona: Planeta, 2000.

KINDER, H; HILGEMANN, W. eta HERGT, M. Atlas histórico mundial. Madril: Akal, 2001. (hainbat edizio)

LARIO, Ángeles (koordinatzailea): Historia contemporánea universal. Del surgimiento del Estado contemporáneo a la Primera Guerra Mundial. Madril, Alianza, 2010.

MARMARELLA, G. Historia de Europa contemporánea, 1945-1990.- Bartzelona: Ariel, 1990.

MARTINEZ CARRERAS, J.U. Introducción a la historia contemporánea. - Madril: Istmo arg., 1983, 2 liburuki.

MORADIELLOS, Enrique. Historia del mundo contemporáneo en sus documentos, Granada: Comares, 2019.

PALACIOS BAÑUELOS, Luis. Manual de Historia Contemporánea universal. Madril: Dilex, 2008, 2 liburuki.

PALMER, R. eta COLTON, J. Historia contemporánea. - Madril: Akal arg., 1980.

PAREDES, J. (koordinatzailea). Historia del Mundo Contemporáneo. Siglos XIX-XX. Bartzelona, Ariel, 2004.

PÉREZ GARZÓN, Juan Sisinio. Historia de las izquierdas en España. Madril, Catarata, 2022.

RÉMOND, R. Introducción a la historia de nuestro tiempo. - Bartzelona: Vicens Vives arg., 1980, 3 liburuki.

RIVERA BLANCO, Antonio. Historia de las derechas en España. Madril, Catarata, 2022.

RUDÉ, G.: Europa desde las guerras napoleónicas a la revolución de 1848, Madril, Cátedra, 1982.

SANTIRSO, Manuel. España en la Europa liberal (1830-1870). Bartzelona: Planeta, 2012.

SCHAMA, S.: Auge y caída del Imperio Británico 1776-2000, Bartzelona, Crítica, 2004.

VILLARES, R. eta BAHAMONDE, A. El mundo contemporáneo. Siglos XIX y XX. Madril: Taurus, 2001.

Eskuliburu orokor horiez gain, interesatzen zaigun aldi osoa hartzen duten bi sorta eskuliburu ere aipatu behar dira:

HOBSBAWM, E.J. La era de la revolución (1789-1848). - Bartzelona: Labor arg., 1991. HOBSBAWM, E.J. La era del capitalismo (1848-1875). - Bartzelona: Ed. Labor, 1989. HOBSBAWM, E.J. La era del imperio (1875-1914). - Barcelona: Labor arg., 1989. HOBSBAWM, E.J. Historia del siglo XX (1914-1991). - Bartzelona: Crítica arg., 1995.

PÉRONNET, M. Del Siglo de las Luces a la Santa Alianza (1740-1820). - Madril: Akal, 1991. HEFFER, J. eta SERMAN, W. De las revoluciones a los imperialismos (1815-1914). - Madril: Akal, 1989. BRUNET, J.P. eta LAUNAY, M. De una guerra a otra (1914-1945). - Madril: Akal, 1991. HEFFER, J. eta LAUNAY, M. La Guerra Fría (1945-1972). - Madril: Akal, 1980.